

# prest!



BERBETAN: **NEREA ZULUAGA** SOZIOLOGOA ETA IKERLARIA

ERREPORTAJEA: **ATZERA BEGIRA BARKUA: EUSKAL HERRI DUINAGO ETA FEMINISTAGO BAT ERAIKITZEN**

8-249-250-251-252



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu  
**Prest!**

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

bilbokoaldizkariak@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu



# aurkibidea

	Itsaso Larramendi Elexgaray - Jon Zubieta		<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
	Asier Bustamante		<b>Gureak kanpoan</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> Atzera begira			
	<i>2023. urteak aldaketa nabarmenak ekarri ditu Deustualdeko zenbait lekutan, baita auzi potoloagoen inguruko eztabaida ere, besteak beste: hiriguneetako naturarekiko errespektuarena edota ondare kulturalaren babesarena.</i>			<b>6</b>
	Euskararen Eguna CEIP Deusto HLHI ikastetxean		<b>Eskolak</b>	<b>10</b>
	Deustuko dorretxeak eta jauregiak bereizteko oharrak		<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
	Suizidioaren inguruko hausnarketak		<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> NEREA ZULUAGArekin			
	<i>Soziologiako ikasketak burutzen ari zela, Nereak bere etorkizuna ekologia eta jasangarritasunera bideratzea erabaki zuen.</i> <i>Deustuarraren lan-ildo nagusiak Bizitzaren Jasangarritasunarekin lotuta daude, batez ere ikuspegi ekofeministetatik eta dekolonialetatik abiatuta. Gaur egun, beste hainbat lanekin batera, Ekopol ikerketa taldean lanean dihardu.</i>			<b>16</b>
	Deustuko zubia (1932)		<b>Irudiak berbetan</b>	<b>21</b>
	<b>ZINEA</b> Izena duena bada			
	<b>GREBA FEMINISTA</b> Euskal Herri duinago eta feministago bat eraikitzen			
	<b>PINTXODROMOA</b> La Parrako ptata tortilla			
	<b>KULTUR TXOTX</b> Danel Lauzirika Erkiaga eta Oihana Gimenez Infante			
			<b>barkua bete herba</b>	<b>24</b>

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustu 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Asier Cobos

**Erredakzioa:** Axular Arostegi, Asier Cobos, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Nerea Cubillo Urkizu

**Diseinua:** BOST

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800



**Itsaso Larramendi Elexgaray**

Hiriaz eta beste

## Okupazioaren politika espazialak

Banaezina banatzeko saiakera desesperatuan eta lurralde subirano baten gainean herrialde berri bat sortzeko helburuaz, Israelgo estatuak urteak daramatza azpiegitura eta politika espazial oso konkreituak ezartzen Palestinako lurraldeetan. Okupazio-estrategia horretan arkitekturak izan duen funtzioa ulertzeko hiru klabe dakartzat hona Eyal Weizman-i hartuak:

Geografia elastikoarena da lehenengoa. Muga politikoak etengabe berrantolatzen dira, ez dira soilik mapa bateko marra edo hormigoizko horma bortitza. Mugak hesiez, segurtasun bereziko eremuez, blokeoz edo hilketa-eremuez daude osatuta, eta lurraldea nahieran zabaldu edo uzkartzeko balio dute.

Bertikaltasun politikena da bigarrena. Gatazkaren mugak ez daude soilik lurrazalean, eta latitude topografiko ezberdinetan azaltzen dira: kolonia israeldarrak zubi-errepideen edo


lurrazpiko tunelen bitartez daude konektatuta, eremu palestinarrak azpian edo gainean utziz. Azpiegitura fisikoek, beraz, lurraldea geruza ezberdinetan habitatzea ahalbidetzen dute.

Banaketa politikena da hirugarrena. 1990etik hona, Palestinarren gobernupean dauden eremuek artxipelago bat osatzen dute, eta West Bank eta Gazako lurren tarteko eremuak Israelgo militarren kontrolpean daude. Dominazioa ez da presentziaren bitartez ezartzen, eremuak banatuz, harresituz, eta horien arteko fluxuak kontrolatuz baizik.

Estrategia sotilak dirudite Israel orain egiten ari den genozidioarekin alderatuta. Baina lurra eskuratzeko gatazka da hau, eta espazioa ez da gertaeren kokaleku soila, kolokan jarri, eraldatu eta eskuratu nahi dena baizik.



**Jon Zubieta**  
Sanitarra



## Faxistak auzoan

Azken asteetan jakin izan dugu desokupazio enpresa batek auzokide batzuk mehatxatu eta jazarri dituela, euren etxebizitzatik kanporatzeko asmoz. Horrelako praktikak ez dira berriak, komunikabide ugarietan horrelako enpresen metodo faxistak zuritzen saiatu diren arren.

Izan ere, faxismoa urruneko kontua edo termino anakroniko bezala har bagenezake ere, kapitalak bere interesak indarrean jartzeko asmoa duen leku eta momentu orotan ager daiteke, modu horretan iristen baita legedia, instituzio edo estatuko indarren bitartez iristen ez den tokietara.

Ikusi besterik ez dago horrelako enpresen jarduerarekiko gaur egun existitzen diren axolagabetasun eta pasibitatea, horien

inpunitate eta negozio osoa bermatzen dutena, kapitalari eta errentatzaile handieei guztiz funtzionala zaiena.

Erlazio sinbiotiko zital honen galtzaile nagusia, beti bezala, egoera zaurgarrienean dagoen proletalga da, zeinak batetik faxisten jarrera oldarkorra pairatu eta bestetik oinarritzko bizi bitartekoei zuzenean erasotzen dion bide berri bati aurre egin behar dion, egungo egoeran gutxi balira bezala.

Zentzu horretan gure auzoetan ezin dugu inolako adierazpen faxistarik onartu eta tinko salatu behar ditugu horrelako gertaerak faxistak gure kaleetatik lasai ibil ez daitezen, euren jardueraren atzean zer nolako interes ezkututzen diren ahaztu gabe. Gure auzoetan ere, faxismoa borrokatu!





## Asier Bustamante

**Jatorria:** Deustu

**Bizitokia:** Argentina

**Lanbidea:** Ikaslea



### **EHUko nazioarteko mugikortasun esperientzia batean zaude. Zerk eraman zintuen Argentina hautatzera?**

Egia esan, bi izan ziren Argentinan hautatzera eraman ninduten arrazoi nagusiak. Lehenik eta behin, aitortu beharra dut Argentinako hizkuntza gaztelera izateak erabakian asko lagundu egin zuela; izan ere, beste hizkuntza bateko herrialde batera joatea baino askoz erosoagoa iruditzen zitzaidan. Bigarrenik, esan dezaket beste kontinente batera mugitzeko aukerak asko motibatu ninduela. Azken finean, asko gustatzen zait bidaiatzea, eta ba ote hau baino aukera hoberik?

### **Jakin dugu asko bidaiatzen ari zarela. Zer da orain arte gehien gus-tatu zaizuna?**

Orokorrean bidaia guztiak izan dira izugarriak, baina toki baten bat goraiatu beharko banu Argentinako Patagonia goraiatuko nuke, Barilotxetik hasita, Calafate eta Chalten igaro eta Ushuaian bukatuz. Izugarriak dira Patagoniako paisaiak, dena mendi elurtuz eta kolore berdez beterik, benetan ikus-tekoa! Gainera, abenturaz jositako bidaia izan da, kilometro andanako ibilaldiak, hainbat lakutako bainu freskagarriak,

eskiatze egunak... Denetarik izan du!

### **Hilabete batzuk egin dituzu jada Argentinan. Esango zenuke bertako bizimodura ohitu zarela?**

Jakina! Aitortu behar dut lehenengo astea ez zela erraza izan; izan ere, ez da erraza lehenengo egunetako talka kulturala. Hala ere, ez zitzaidan asko kostatu hemengo bizimodura ohitzea, eta gaur egun nire auzoan ibiliko banintz bezala nabil Argentina osotik!

### **Diferentzia handirik somatu duzu Euskal Herriarekin alderatuta?**

Ez da erantzuteko galdera erraza. Alde batetik, desberdintasun nabarmenak ikusi ahal izan ditut, baina, bestetik, nahiko antzekoa da batzuetan. Hau da, ni Buenos Aires hiriko Recoleta auzoan bizi naiz eta, auzo honi dagokionez, Euskal herriko edozein hiri handiren antza duela esan dezaket; izan ere, eraikin ertain eta altuak ditu, eta kaleko giroa nahiko ona dela esan daiteke. Hala ere, Buenos Aires hiriko auzo honetatik irteetan sekulako desberdintasunak daude nonahi. Adibide bat jartzearen, nire unibertsitatea Buenos Aireseko probintzian dago, tren hartu eta 40 minutu ingurura

dagoen Caseros izeneko auzoan. Trenak dirauen 40 minutuko ibilbidean, lehiatilik begiratu gero, ez da etxe guztiz bukatu eta dotore bat ere ikusten.

### **Javier Mileik hauteskundeak irabazi berri ditu. Nola bizi izan da bere garaipena?**

Egia esan, momentuz behintzat nik ez dut inolako ezberdintasunik nabaritu. Hauteskundeek ez ninduten Buenos Airesen harri-patu, bidaiatzen ari bainintzen; hala ere, hemen egin ditudan lagunek esan zidatenez, jende mordoxka irten zen kalera ospatzera eta haien hitzetan hirian anabasa gailendu zen.

### **Gabonetan ez zara etxera itzuliko. Badaukazu planik gabon zaharrerako?**

Noski! Eta ez edonolako plana, 15 egun inguruko bidaia antolatu dugu Brasil ezagutzeko. Egun hauetan zehar Brasilo hainbat hiri eta leku ezagutuko ditugu, eta bukatzeko, gabon zaharra Rio de Janeiroko hondartzan ospatuko dugu, "Reveillon" izeneko festa famatuan. Zoritzarrez, bidaia hau Euskal Herrira bueltatu baino lehenagoko azken bidaia izango da, urtarillaren erdialdera izugarria izan den Argentinako egonaldi hau bukatuko baita.



Stop Tala Deusto Plataformaren mobilizazioa.

## ATZERA BEGIRA

*2023. urteak aldaketa nabarmenak ekarri ditu Deustualdeko zenbait lekutan, baita auzi potoloagoen inguruko eztabaida ere, besteak beste: hiriguneetako naturarekiko errespektuarena edota ondare kulturalaren babesarena.*

**Testua eta argazkiak:** Axular Arostegi

Urte hasiera proposamen eta erronka berriei ekiteko unea dugu, biharko egunari beste modu batean aurre egitekoa. Hala, gabon-zaharreko gaueko 12etatik aurrera, gure bizitzaren etapa berri bat hasiko balitz bezala, aldatu nahi ditugun gauzei buelta emateko jarri hartzeko modu berri bat; horren adierazle da, esaterako, urtarrilean gimnasioek bizi ohi duten izen-emateen gorakada.

Abenduko azken egunetan, ordea, oso bestelakoa izan ohi da gizabanakoon ohitura. Izan ere, urtea amaitzeko dagoela jakiteak berekin dakar, nahi eta nahi ez, azken 365 egunek eman dutena aztertzeko tentazioa, atzera begiratzeko, alegia.

Bada, gure herriak, gure bizitzak bezalaxe, aldaketa ugari bizi izan ditu amaitzeko dagoen

2023. urtean zehar. Urtarriletik hona obren zaratara eta horiek eragindako ezbeharretara ohitu gara deustuarrok, non eta gure herriko kalerik luzeenean, Lehendakari Agirre Etorbidean, hain zuzen. Bilboko Udala aurrera eramaten ari den lan horien baitan, Etorbideko zuzarren mozketak aparteko oihartzuna izan du hedabide eta herritarrengan.

Alde horretatik, ukazina da Deustualdean zuhaitzen babesarekiko grina piztu dela azken hilabeteetan, Stop Tala Deusto plataformaren sorrerak adierazten duen moduan.

Bestalde, lehenagotik datorren auzi handiagobaten parte den arren, Deustuko Erriberak bere ikur historikoetako bat galdu du berriki: Palmondoaren Etxea. Gainera, hurrengo urtetarako aurreikusita dauden proiektu eta eraikuntzak





Madariaga Etorbideko obrak.

tarteko, auzoaren identitatea arrisku garbian dago, inoiz baino gehiago.

### Hiriguneko zuhaitzak jomugan

Joan den urteko azaroaren 28an, Bilboko Udalak Agirre Lehendakariaren Etorbidearen berritze lanak hasi zituen, Done Petri Plazan egindako lanen jarraipen modura.

Hala, behin Don Bosco Biribilgunetik Sagrada Familia Kalera bitarteko zuhaitz guztiak moztuta, beste horrenbeste egin dute azken hilabeteetan Enekuri Etorbidearen aldekoekin, Done Petri Plazara iritsi arte. Era horretan, Udalak adierazi duenez, proiektuak

etorbide honetako 128 aleren mozketa suposatuko du orotara, beste espezie bateko 125 landatuta. Moztutako zuhaitz guztiak zumarrak dira eta Red Point motako astigarrarengatik ordezkatuko dira. Ekintza hau aurrera eramateko, Udalak 50 urteko zumar horiek gaixorik daudela eta biztanleentzat arriskutsuak direla adierazi du; izan ere, horietako batzuk erori egin baitziren azkenaldian. Momentu honetan, mozketa Iruña kalera arte iritsi da.

Ildo horretatik, Stop Tala Deusto Plataformako kide den Silvia Rodrigok gogorarazi nahi du proiektuak ez duela soilik Deustun eragingo: “Udalean esan digutenez, Etorbideko zuhaitzen mozketa Pio X plazatik Elorrietaraino luzatuko da. Momentu honetan, mozketa hiru hirugarren faserako aurrekontua onartuta dago, Don Bosco Biribilgunetik Sarrikoko metro geltokirainoko tartea, alegia. Laugarren faserako, ordea, Elorrietatik Sarrikoko metro geltokiraino doan tartea hartzen duenak, oraindik ez dago aurrekontua onartuta, aurreproiektua existitzen den arren”.



Gainera, Madariaga Etorbidean ere obrak hasi dira azken asteetan. Zehazki, Rafaela Ybarra kalea eta Agirre Lehendakariaren



Etorbidea lotzen dituen tartean, espaloiak zabaltzeko lanei ekin die Udalak. Irailaren erdialdean hasita, 2024ko maiatzean bukatzea aurreikusita dago. Gauzak horrela, hasiera batean zenbaki bikoitien aldeko zuhaitzak beste batzuenatik ordezkatzeko aurreikusita bazegoen ere, azkenean zuhaitz guztiak bere horretan mantentzea erabaki du Udalak.

### **Antolakuntza, herritarren erantzuna**

Aipatu bezala, Udalaren erabakiaren aurkako desadostasuna plazaratzeko, sona nabarmena lortu duen plataforma bat sortu zen joan den ekainean: Stop Tala Deusto. Deustualdeko zenbait biztanlek, mozketaren eragin ekologikoaz arduratuta, lehendabiziko elkarretartzea antolatu zuten ekainaren 12an. Geroztik, mobilizazio ugari egin dituzte 5.000 sinadura inguru jasoz eta Deustuko eragile desberdinen babesa lortuz.

Irailaren 28an, Bilboko Udaletxeko osoko bilkuran parte hartu zuten, Agirre Lehendakiaren Etorbideko zuhaitzen mozketaren

gelditzea eskatzeko; hala ere, ez ziren gus-tora geratu lortutako emaitzarekin. “Sentsazio oso txarrekin irten ginen Udaletxetik. Errealitatea ezagutu genuen egun horretan; alde batetik, guk nahi genuena ez genuelako lortu eta, bestetik, Udalak guk aurretik egindako lan guztia pikutara bidali zuelako. Guk gauza asko albo batera utzi ditugu: lana, familia... Asko jarri dugu borroka honetan. Horregatik diot, egun hori inflexio-puntu bat izan zela guretzako”, adierazi du Rodrigok.

Edozelan ere, eragilearen kideek argi dute momentu honetan helburua hiriguneko zuhaitz guztiak babesteko dituen lege baten onarpenean datzala. “Lege orokor hori gure azkeneko helburua litzateke. Alegia, hiriguneko zuhaitz guztiak babestu ahal izatea, hemengoak diren ala ez kontuan hartu gabe. Arazoa zera da, hemen guk elkar-te bezala ezin dugula askorik egin. Alde horretatik, partidu politikoek dute garrantzia. Bereziki, Eusko Legebiltzarrean datza gakoa. Hain zuzen ere, ez du ezertarako balio izango Bilbo mailan horrelako lege bat



Lehendakari Agirre Etorbideko zuhaitzen mozketeta.



Palmondoaren Etxea.

onartzeak, Eusko Jaurlaritzak bestelako lege bat onartzen badu”, nabarmendu du Rodrigok lege orokorraren harira.

### Herriko ikurren galera

Urteak daramatza Deustuko Erribera ezagutzen dugun modura goitik behera aldatzeko prozesuak. Zorrotzaurrek eta Erriberak osatzen zuten penintsula irla bihurtzeko lanak 2014an hasi eta gero, 2018an izan zitzaion proiektuari amaiera.

Geroztik, hamaika eraiste eta eraikuntza lan eramaten ari dira aurrera zonaldean. Hala, hilabete honetan, abenduaren 4ean, zehazki, Erriberako beste ikurretako bat bota zuten: Palmondoaren etxea.

125 urteko historiaren ostean, etxearen jabeek akordioa sinatu dute Biurban kooperatiba gestorearekin, Zorrotzaurre Atea, prezio libreko 33 etxebizitzaren blokea eraikitzeko. Dirudienez, Biurbanek eraikina eraitsi eta etxebizitzak eraikitzeko materialak metatzeko erabiliko du haren lekuan geratuko den lurzoru soila, eta lanen gastuak ordaindu eta familia jabeari lurrak itzulizko dizkio lurzorua saltzen denean.

Eraisketaren aurrean, iraganaren eta etorkizunaren arteko noranzko eta identitate kontrajarririk geratzen dira agerian. Izan ere, Bilboko Udalak jakitera eman duenez, irla berritzeko lanen baitan, Euskadiko Parke Teknologikoaren Bilboko egoitza eraikiko da bertan; orotara, Campusak 5.300 m2 eskainiko ditu enpresentzat eta teknologia aurreratuko proiektuentzat.



**EUSKARAREN  
INTERPRETAZIO  
ZENTRO BERRIA  
BILBON,**

**ZATOZ!**

[www.euskararenetxea.eus](http://www.euskararenetxea.eus)

  
Euskararen Etxea

**EUSKARAREN  
INTERPRETAZIO  
ZENTROA**

  
Bizkaia



## ABENDUAREN 4AN EUSKARAREN EGUNA OSPATU GENUEN CEIP DEUSTO HLHI IKASTETXEAN



**Testua eta argazkiak:** CEIP Deusto HLHI

Abenduaren 3an, igandean, Euskararen eguna izan zen. CEIP Deusto HLHI ikastetxean, ordea, astelehenean, abenduaren 4an, ospatu genuen. Guretzat euskararen sustapena oso garrantzitsua baita.

Ezin dugu ahaztu gure zentroa kulturetan aberatsa dela. Izan ere, munduko leku askotako familiak ditugu. Familia gehienetan, ama hizkuntza gaztelania da, baina beste zati handietan txinera, arabiera, georgiera, frantsesa edota errumaniera izan daiteke.

Horrek kulturetan aberatsa den komunitate bat bihurtzen gaitu, mundura irekitzen laguntzen gaituena.

Hain zuzen ere, gure ikasleen euskalduntze erronka handia da, eguneroko lana behar duena. Horretarako hainbat ekintza eramaten ditugu aurrera; hala nola, euskara kanpainak oporraldiak eta gero, Euskal Herriko kulturara hurbiltzeko hainbeste ekintza, etab. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: bertsolaritza, Agate Deuna, Kantagintza ostiraletan eta Olentzeroren jaiak.



Horregatik, abenduaren 4an, gure ikastetxean Euskeraren Eguna ospatu genuen. Pozarren gainera!

Horretarako, irakasleek era askotako ekintzak prestatu zituzten goizean eta arratsaldean gauzatu zirenak. Hain zuzen ere, egunak eskaintzen zuen eguraldi ona aprobetxatu beharra zegoen. Deustualden ez gaude horrelakoetara oihututa. Hori bai, denak elkarlanean, ondo pasatzeko helburuarekin eta euskara oinarritzat hartuz.

Ekintza horien helburua, besteak beste, ikasleak euskararen garrantziaz jabetu daitezela eta, era berean, euskararen erabilera ohiturak sendotzea izan zen, Berbaizu Euskara Elkartetik proposatutako “TIPI-TAPA, EUSKARAZ” leloa izanik.

Horretarako, aisialdirako ekintza dibertigarriak proposatu genituen ikasleek euskaraz baerre eta jolas zezaten. Horrenbestez, jai giroa izan zen nagusi egun osoan zehar.

Goizeko sarrera Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan abestien eskutik egin genuen,

giroa alaituz, giroa euskaldunduz. Goizean zehar, HHTik hasita eta LHko 6. mailarekin amaituta, gure “TIPI-TAPA, EUSKARAZ” horma-irudia osatu genuen, horma-irudi itzel polita, CEIP DEUSTO HLHI ikastetxean euskararen erabilera areagotzeko poliki-poliki ematen ari diren urratsak adierazten zituena.

Jolastordua eta gero, argazki orokor bat atera genuen ikasleek margotutako kartel batekin atzeko plano gisa, “Euskeraz bizi nahi dut” zioena. Jarraian, gimnasio-ra joan ginen eta hor dantzan eta kantan igaro genuen goiza, “Euskaldunak gara”, “Ahoa bizi, belarriak prest”, “Euskeraren txantxangorria”, “Behin betiko”... eta mota horretako abestiak kantatuz.


Azkenik 6.mailakoek prestatutako bertsoak ikasle eta irakasle guztiarekin konpartitu zituzten. Ekitaldia itxeko, denok batera Oskorriren GUK EUSKARAZ abestu genuen.

Arratsaldean, bakoitzak bere gelan amaiera eman zion egunari, batzuk filma bat ikusten, mahai jolasen artean besteak. Baina denek euskara buruan eta bihotzean.



# DEUSTUKO DORRETXEAK ETA JAUREGIAK BEREIZTEKO OHARRAK

*Bost dira, gutxienez, dorretxe izena jantzita ageri izan zaizkigun Deustuko eraikinak. Baina Daniel Luengasen doktorego-tesia gidari hartuta, ñabardurei erreparatuko diegu, ea zehaztu dezakegun dorretxeak ala jauregiak izan ote ziren.*



**Testua:** Hektor Ortega

Daniel Luengasek 2019an defendatu zuen bere doktorego-tesia EHUko Arkitektura eskolan. Behe Erdi Aroko nobleen etxeak hartu zituen ikergai, XIV. mendearen erdialdean agertu ziren lehenengo dorretxeetatik abiatu eta XVI. mendearen hasierako jauregi-etxeekin amaitu.

Luengasek nabarmendu zuen Bizkaiko dorretxeak, oro har, Erdi Arokoak bai, baina oso berandukoak zirela, XIV. eta XV. mendekoak. Dorretxe horiek defentsa eraikinak ziren, nolabait esatearren "militarrak", jaun edo andre boteretsu baten egoitza izateaz gain. Behe Erdi Aroko krisialdian bandokideen arteko gerlek bazterrak zeharo nahastu zituzten Bizkaian.

Gatazkak, sarraskiak, arpilaketak... eguneroko ogia bilakatu ziren XIV eta XV. mendean, ganboatarrak batetik, oinaztarrak bestetik. Ingurumari hartan, dorretxeak jauntxoek bizilekua ez ezik, gotorlekuak ere baziren, edozein erasoari aurre egiteko prest.

Baina Erdi Aroa agortu orduko, XV. mendearen amaieran, nobleen egoitza ez-defentsiboak agertzen hasi ziren: jauregi-etxeak. Zertan datza batzuen eta besteen arteko aldea? Dorretxeetan eginkizun nagusia defentsiboa zen heinean, egitura nagusiak betebeharrak horri erantzuten zion: harrizko horma sendoak (XIII. mendera arte, antza denez, egurrezkoak izan bide ziren, nagusiki, Bizkaiko eraikin zibilak), oinpla-

no laukizuzena, altuera handiko dorrea, osagai militarrik (almenak, gezi-leihoak, harresia inguruan...). Jauregi-etxeak, berriz, garai berrietako erakusgarriak ziren: bizileku atseginagoa, nobleziako klaseak bere buruarentzat eskatzen zuen mailan, gotorlekutik jauregirako trantsizioan.

Hortaz, osagai militarrik gabeko eraikinak ziren, bizitzeko erosoagoak (leiho eta sarbide gehiago, adibidez...), leinuaren mailaren isla, baina oraindik ere eraikin sendoak, harrizko horma lodidunak.

### Doneperiaga eta Madariaga

Bere tesian, Luengasek Deustuko dorretxe bi hartu zituen eraikin mota bien arteko aldeak erakusteko adibidetzat. Horretarako, 1729ko Deustuko irudi bat erabili zuen, Valladolideko Errege Kantzelaritzaren artxiboan dagoena. Bertan, Deustuko elizaren aurrean zegoen Doneperiaga dorretxea eta Madariaga auzoko dorretxea ageri dira. Luengasen aburuz, Doneperiaga dorretxe peto-pettoa zen. Irudian ikusten den bezala, altuera handiko dorretxea zen, areto nagusia zeukan, eta goialdean hormatik kanpo ateratzen zen egurrezko egitura defentsiboa (kaldaltsoa) erantsi zioten. Gainera, dorretxea inguratzen zuen harresi edo zerkoa ere bazuen. Irudian ikusten diren leihoak, azkenik, Erdi Aroa amaitu eta gero ireki zituztela uste du ikertzaileak.

Madariagako dorretxeari erreparatzen badiogu, berriz, Luengasek nabarmendu zuen altueran Doneperiaga baino askoz baxuagoa zela eta tamaina handiko leiho galeria ikusgarria zeukala.

Gainera, goiko kaldaltsoa gezurrezkoa bide zen, apaingarri hutsa. Jakingarri horiekin, Madariaga jauregi-etxea zela ondorioztatu zuen Luengasek. Doneperiagan ez bezala, Madariagako dorretxearen argazkiak dauzkagu, baina horietan XIX. mendean zeharo zaharberitutako jauregi dotorea ageri da eta ez XV.-XVI. mendean artean altxatu zuten eraikina.

Zutunik dirau, ostera, ozta-ozta eta nahikoa kalteburik bada ere, Larrakotorreak. Bere jatorrizko lekutik (gaur egun San Ignazioko anbulatorioa dagoen tokitik) Sarrikoko parkera eraman zuten 1960ko hamarkadan, bestela induskailuek txikituko zuten eta.

Ale horrekin ez da dudarik: XVI. mendean lehenengo erdialdean altxatutako jauregia da, dorretxe egiturarekin baina gotorleku zereginik gabe, maila altuko familia baten bizileku eroso eta haren itzal sozialaren erakusgarri izateko diseinatuta. Hortaz, askotaz hurbilago Madariagako dorretxetik Doneperiagatik baino.

Herrian dorretxe bi gehiago izan ziren baina, tamalez, oraingoz ezin esan seguru ze eraikin mota ziren. Luzarrako dorretxea gaur egun Deustuko Unibertsitatea dagoen orubean altxatzen zen. Eta Berrizen ere "torre" izena jaso zuen eraikina izan zen, Legizamondarren esku. Leinu hori nagusi izan zen Bilbo aldean Behe Erdi Aroan.

Beraz, esan genezake Deustun gutxienez dorretxe bat izan zela (Doneperiaga), baita jauregi-etxe bi (Madariaga eta Larrakotorre). Gainerako biak (Luzarra eta Berriz), noiz argituko begira gelditu zaizkigu, oraingoz.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





# DURANGON DA! BERBAIZU

Testua eta argazkia: Prest! eta Berbaizu Euskara Elkarte

*Aurtengo Durangoko Azokak bisita berezia izan du. Izan ere, Berbaizuk antolatutako txangoan, Deustualdeko hainbat eragile izan ziren; hain zuzen ere, Txantxikuko begiraleak eta umeak eta Euskara Batzordeko kideak (Ibarrekolanda BHI, Deustuko Ikastola, San Inazio eskola eta Botikazahar BHI-ko ikasleak). Hona hemen ikasleek Durangoko Azokan bildutako esperientziak:*

**“Diskak ikusten ibili gara. Hainbat artistekin izan gara ere; hala nola, Peio Reparaz (ZETAK) eta Zea Mayseko kideekin. Gainera, Urtz taldeak diska sinatu digu”**

Oier, Ander eta Nerea



**“Lehenik eta behin, Nogenen kontzertuan izan gara. Bertan, gitarjolearen pua eskuratu dugu. Ondoren, azokatik buelta bat eman dugu. Bertan, Huntzako postuan poltsa erosi eta argazkia sinatu digute artistek. Azkenik, taloak hartu eta kontzertu gehiago ikustera joan gara. Giro ederra izan du aurtengo Durangoko Azokak”**

Jone eta Joane

**“Postu guztietatik bueltak ematen ibili gara. Izarorekin batera kanta bat abestu dugu, momentu ikaragarria izan da. Izan ere, Gahonetako ekitaldian, Izaroren kanta bat abestuko dugu eta, beraz, berari erakutsi nahi genion”**

Naia, Sandra eta Xabi



**“Diru gutxi genuenez ez genekien zer erosi. Azkenean, Gatibu taldearekin topo egin dugu eta haien poltsa eta posterra erosi dugu. Horrekin batera, Huntzaren poster batzuk ere erosi ditugu. Bai, gure diru guztia xahutu egin dugu”**

Haizea eta Lorea





# SUIZIDIOAREN INGURUKO HAUSNARKETAK

Abenduaren 16an, “Zirikatzen” formazio taldeak antolatutako azken ekimenaren amaiera izan zen. Azaroko zenbakian garatzen genuen modura, urrititik hona suizidioaren inguruan hausnartzeko hainbat jardunaldi antolatu dituzte. Era horretan, larunbatean hitzaldi zikloaren azkeneko jardunaldia antolatu zen Deustuko Erriberako Bizinahi Auzo Gunean. Hala, “Zirikatzen”-eko kideek espezialitate ezberdinetako kideak gonbidatu zituzten, nor bere esperientzia eta jakintza esparrua ardatz hartuta gaia landu zezan. Orotara, zortzi ikuspuntu eta bizipen ezberdin bildu zituen abenduko ekitaldiak.

Parte hartu zutenen artean, esan bezala, gonbidatuek ikuspuntu anitzak eskaini zituzten. “La Porvenir” sareko kideek, esaterako, kasu askotan ematen den indarkeria psikiatrikoaz hitz egin zuten, baita elkar zaintzaren garrantziaz ere; alabaina, eromenari erantzun kolektiboa emateko lan egiten duen sarea osatzen dute. Irakasle lanetan diharduen Manu gazteak egungo hezkuntza sistemak suizidioaren auziari aurre egiteko gabezietan jarri zuen fokoa. Horretaz gain, Gobetik gaur egun existitzen diren erremintak iritzi publikoarekiko irudi bat saltzeko bitarteko modura deskribatu zituen.

Osasungintzako eta zerbitzu publiko ezberdinetako langileen testigantza eta hausnarketak ere aipatzekoak izan ziren. Beñat eta Ander suhiltzaileek, esate baterako, haien jardunean suizidiozko kasuekin bizi duten errealtatea azaldu zuten. Alde horretatik, ez zuten aipatu gabe utzi nahi izan “erakundeek suizidoarekin lotutako kasuek gizartearen porrot bat suposatzen dutela onartzeko arazoak” dituztela. Bestalde, Mari erizainak eta Blanca psikologoak ere parte hartu zuten. Lehenak, bereziki nahasmendu mental larria pairatzen duten etxerik gabeko pertsoekin lan egiteak dituen zailtasunez mintzo zen. Bigarrenak, ordea, egungo medikuntzan eta psikologian patologizatzeak dituen arriskueta jarri zuen fokoa.

Aipatutakoez gain, beste profesional batzuk ere parte hartu zuten, Muji sindikatu bateko lan-arloko abokatuak eta Amaia kazetariak, besteak beste. Abokatuak gehiegizko lan kargen ondorioz depresiozko edota antsietatezko langileen kasuak aipatu zituen. Ildo horretatik, hostalaritza eta zaintza lanen sektorea nabarmendu zituen gisa horretako arazoak eragiten dituzten lan jarduera modura. Kazetariak, bere aldetik, bere lanbidean gaiaren inguruan existitzen den formazio faltari eman zion garrantzia.

Gauzak horrela, “Desoreka, suizidioaren inguruko jardunaldiak” izeneko hitzaldi zikloari amaiera eman zaio. Gorka Calzada “Zirikatzen”-eko kidearen hitzetan, “Balorazio oso positiboa egiten dugu. Guretzat jardunaldiek bi helburu zituzten: batetik, jendartean suizidioaren inguruko debatea eta formakuntza zabaltzea, eta, bestetik, geroa egin ditzakegun proiektuak egin ahal izateko tresnak hartzea. Beraz, esan dezakegu guk ere prozesuan asko ikasi dugula, ez ginen, inolaz ere, gaian adituak”.





# berbetan

NEREA ZULUAGAREKIN

Soziologoa eta ikerlaria

*“Planeta mugatua da, gure l*

*Soziologiako ikasketak burutzen ari zela, Nereak bere etorkizuna ekologia eta jasangarritasunera bideratzea erabaki zuen. Deustuarraren lan-ildo nagusiak Bizitzaren Jasangarritasunarekin lotuta daude, batez ere ikuspegi ekofeministetatik eta dekolonialetatik abiatuta. Gaur egun, beste hainbat lanekin batera, Ekopol ikerketa taldean lanean dihardu.*



## ***“bizitza mugatua den bezala”***

### **Zerk eraman zintuen soziologiatik ekologiara?**

Gauzen zergatia ulertzeko ikasi nuen soziologia. Ikuspegi kritiko batetik, errealtatea irakurtzeko tresnak nahi nituen, alegia. Gaur egun, sistema sozioekonomikoak bizitzaren kontra egiten duela esaten da; hau da, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka dugula. Horregatik, bizitzaren kontzeptu horri bueltak ematen hasi nintzen eta “ondo” bizitzea zer den ikertzera bideratu nituen ikasketak. Horrek munduko beste tokietako errealtateak ezagutzea ahalbidetu zidan, kapitalaren logikatik at kokatzen direnak, eta bizitza ulertzeko beste modu bat zegoela ikusi nuen. Jatorrizko herrien ikusmoldeak, ekofeminismo eta dekolonialitateara pasa nintzen; izan ere, ikuspegi horietatik edan ez hasi nintzen ulertzen gizarteko gatazka nagusienetarikoa bat: natura eta gizakiaren arteko erlazioa. Aipatutako jatorrizko herri horietan natura eta, oro har, planetako elementu guztiak jartzen dituzte erdigunean. Iparraldeko gizarteetan, aldiz, gabezia hori dugu. Naturarekiko konexioa galdu dugu. Naturaren eta ekologiaren gaia bizitzarekin estuki loturik zegoela ondorioztatu nuen. Prozesu guzti horrek, beraz, ekologiara eraman ninduen.

### **Zure lanetan bizitza jartzen duzu erdigunean, ezta?**

Bai, nik ikusmolde ezberdin bat ezagutu nahi nuen. Horregatik, autore dekolonialak

irakurtzen hasi nintzen. Dekolonialitatea, nolabait esanda, gizarte modernoan dugun ezagutza eskema deseraikitzen du. Horrek ziurtzat jotzen ditugun gauza batzuk ez dira zertan horrela izan behar azaltzen du. Garapen ekonomikoarena, adibidez. Gure gizartean ohikoa da garapen kontzeptua linealtzat hartzea. Hau da, garapena aurrera doala eta gauzak, modu naturalean, hobera doazela eta aberastasun handiagoa dakartela; bai ekonomian, eta baita beste zenbait esparruetan ere. Ideia hori sakonki dugu barneratuta. Pentsamendu dekolonialak, aldiz, garapenaren ideia horrekin hausten du.

### **Ikasketa prozesu horrek Ekopol ikerketa taldean lan egitera eraman zaitu. Zer da Ekopol?**

Ekopol gizarte zein ingurumen arazoak lantzen dituen diziplina anitzeko ikerketa-talde bat da. Ekologia ez ezik, gizarteko biziki-deen arteko ikerketan dihardugu. Izan ere, ekologia ez dago bakarrik biodibertsitatearen galerarekin edo ingurumen arazoekin lotuta. Hori Ekopolen argi dugu, eta ideia hori gizarteratzen saiatzen gara. Ekologia krisi sozialekin ere lotuta dago. Hain zuzen ere, hortik dator krisi ekosozialaren kontzeptua. Eta horrek beste hainbat kontzeptu hartzen ditu bere baitan; harreman- eta kontsumo-eredu zirkularrak, solidarioak, ekologikoak, ekitatiboak, feministak eta naturarekiko errespetua, batik bat.

**“Ekologia ez dago bakarrik biodibertsitatearekin edo ingurumen arazoekin lotuta”**

## “Desirak edota bizi kalitatea ulertzeko beste modu batzuk badaude”

**Soziologian graduatu ez ezik, masterra egin zenuen eta Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle lanetan ere diharduzu. Gainera, Ekopolen egiten duzun lanarekin batera, doktoretzarekin ari zara EHUKo Soziologiako Departamentuan. Zertan datza zure doktoretzako ikerketa?**

Bai, gauza asko dira. Doktoretzan bizimodu aldaketak ikertzen ari naiz. Krisi ekosozialeko egoeretara egokituagoa egon daitekeen bizimodu bat ikertzen, hain zuzen. Azkenean, trantsizio ekosozial hori gidatu dezaketen balioak eta pentsamolde alternatibo horiek zeintzuk diren aztertzean datza ikerketa.

**Lanak jasangarritasunarekin du erlazioa. Baina, zein da ikerketaren helburua?**

Bizimodu sinpleagoak zer-nolako norabidea hartu dezaketen ikustea da helburua. Horrekin batera, desirak edota bizi kalitatea ulertzeko beste modu batzuk ere badaudela ikertzea. Normalean, norbanako bakoitzaren bizipenek eta esperientziek eragin handia izaten dute aldaketa horietan; batez ere, komunitate edo kultura ezberdinekin kontaktuan izan diren pertsonen artean.

**Horrelako gizarteak posible dira gaur egun?**

Ez. Gaur egungo sistema kapitalista globalizatua mundu osoan errotuta dago, gizartearen alderdi guztietan. Beraz, oso zaila da mundu honekin paraleloki biziko den sistema alternatibo bat sortzea. Beste bizitza eredu potente bat sortzen bada, guk ezagutzen dugun mundua guztiz desagertu delako izango da. Hala ere, txiki batzuk badaude gaur egun, komunitate indigenak eta zapatistak kasu.



**Bertan dibulgazio-jarduerak ere garatzen dituzue. Hain zuzen ere, aurrera eraman duzun azkenengoa abenduaren 12an egindakoa izan zen. Horretan, musika eta energia-inguru berriak lantzen dituen ‘Trantsizioan galduak’ deituriko jardunaldia egin zenuten.**

lazko urte amaieran egindako jardunaldi horretan, krisi energetikoaren gaia musikaren ildotik landu genuen, trantsizio ekosoziala eta artea lotuz. Finean, energiak dena hartzen du bere baitan. Beraz, zergatik ez musikaren industria ez jasangarriaren inguruan hausnartu? Bereziki, makro jaialdien eragin sozial

eta ekologikoa izan zen jardunaldiko elementurik nabarmenena. Izan ere, jaialdi horiek funts putreek kudeatzen dituzte, etekin ekonomikoa helburu. Aldiz, lurra erabat suntsituta uzten dute. Hortaz, musika kontsumitzeko modu hori bideragarria ez dela ondorioztatu genuen. Gainera, datuek dioten arabera, makro festibalek uzten duten azterna ekologikoaren % 60 publikotik dator. Kontuan izan behar dugu, lehen musikariak herriz herri mugitu behar zirela. Orain, aldiz, publikoa mugitzen da, horrek dakarren inpaktu ekologikoarekin.

### **Hala ere, musikaren industria trantsizioan dagoela esaten duzue. Trantsizio ekosozialean ez bada, zeren trantsizioan dago?**

Gaur egun, musikaren industrian ez da trantsizio ekologikorik ikusten, eta izateko intenziorik ere ez. Negazionismo klimatikoa nabaria da. Musikak eraldaketa soziala eragiteko gaitasuna galdu duela zihoen jardunaldiko gonbidatuko batek. Hausnarketa horrekin ados nago. Izan ere, garai batean Oskorri edo Ez Dok Amairu bezalakoak izan zuten eragina ez da ematen gaur egun. Industriak du botere hori. Gainera, barneratuta dugu erabat. Zaila da zirkuitu horretatik kanpo egotea, Spotify edota YouTube-ren testuingu horretatik kanpo.

### **Horrela bada, nola lagundu dezake musikak gizartea trantsizio ekosozialerantz bideratzeko?**

Hori bera izan zen bigarren jardunaldian landutakoa. Bazkalostean, musikari ezberdinak etorri ziren haien esperientziak partekatuz. Euskal talde askotan krisi ekologikoaren gaia presente dago; hala nola, Amooma taldearen abestietan. Gainera, badaude musika sortzeko modu ezberdinak. Adibidez, DJ Reimyren kasua. Musikariak bizikleta birziklatuak erabiltzen ditu baffleak pizteko. Musika zabaltzeko, aldiz, FM frekuentziak erabiltzen ditu eta horiek baffleetara lotzen ditu musika entzun ahal izateko. Irrati frekuentziak erabiltzea askoz ekologikoagoa eta merkeagoa da. Gainera, oso modu errazean egin daiteke. Adibideak badaude, nahiz eta murrizak izan.

### **Nola ikusten duzu gaur egungo gizartea trantsizio ekosozialak planteatzen duen modelo solidarioa, ekologikoa, feminista, ekonomikoa eta naturarekin bat egoteari dagokionez?**

Super berdea. Ez berde ekologikoa, berde primitiboa baizik. Oso egoera primarioan dagoela esan nahi dut, hain zuzen. Gizar-tean dugun bizimodu kontsumista kontuan hartuta... Alderdi politikoak ez dira auzartzen trantsizio hori planifikatzera, hori da arazo nagusia. Alderdiek dute giltza. Hala ere, bi aldetako zeozer dela uste dut. Biztanleriak ere erantzukizuna duela, alegia. Zaila da. Gizar-tean indar handia du "askatasun" kontzeptuak, edozertarako askatasuna; kotxea hartzeko askatasuna, nahi duguna egiteko askatasuna... Gizar-tearen erantzukizuna da askatasun kontzeptu hori birformulatzea.

### **Askatasun kontzeptu horrek mugak beharko lituzke trantsizio ekosozialerako bidean?**

Ekologismoari dagokionez bai, noski. Planeta mugatua da, gure bizitza mugatua den bezala. Hori onartuz gero, logika horrek askatasun gehiago ekarriko luke. Natura eta bizitzaren arteko koherentzia horretan. Horrenbestez, mugatu behar ditugu gure desirak, horrek dakarren askatasun murrizketarekin. Alegia, askatasunak mugak behar ditu.

**“Gizar-tearen erantzukizuna da askatasun kontzeptua birformulatzea”**





## Deustuko Herriko Tabernaren 36. urteurrena

Joan den abenduaren 22tik 24ra bitarte Deustuko Herriko Tabernak ekitaldi berezi ugari antolatu zituen, bere 36. urteurrena ospatzeko. Hala, ospakizunari hasiera emateko, futbolin txapelketa antolatu zuten, azken urteetan jokoak tabernan izan duen arrakastaz baliaturik. Ondoren, larunbatean egin zituzten ekintza gehienak. Eguerditik giro aparta bildu zen lokalean. Bazkaldu aurretiko pintxada eta marianittoa eta gero, herri bazkaria egin zuten, bingo musikatuarekin eta DJ sesioarekin bukatzeko. Alde horretatik, aipatzekoa da bazkaldu ostean egin zuten ekitaldi berezia urteurrenaren harira. Azkenik, igandean, gabon gaua zela kontuan hartuta, afari ordura arte irekita egon ostean, gaueko 12etatik aurrera beste DJ sesio batez gozatu zuten bertaraturakoek.

## Palestinar herriaren aldeko jardunaldia Bizinahin

Palestina eta Israelen arteko gatazkak bere horretan dirau. Alde horretatik, Deustualdean palestinar herriarekiko elkartzun jardunaldia antolatu zuten hilabete hasieran, Erriberako Bizinahin auzogune autogestionatuan. Hala, Xilipurdi Antzerki Taldearen "Salam" izeneko antzerkian eman zion hasiera ekitaldiari. Ondoren, BDZ (Boikota Desinbertsioa Zigorak) mugimenduko kideek egun Palestinan bizi den egoerari buruzko hitzaldia eskaini zuten; izan ere, BDS (Boycott, Divestment, Sanctions) nazioarteko eragileak Euskal Herrian sortu duen mugimendua da, biztanle palestinarrek osatzen dute eta haien herriarentzako justizia, askatasuna eta berdintasunaren alde borrokan dihardute. Jardunaldiari amaiera emateko, Me La Suda eta Kaspas de Rata musika taldeek kontzertua eskaini zuten.

## Desokupazio enpresa batek etxegabetze saiakera egin du Ibarrekolandan









Azaroaren amaieran, Servi Okupa desokupazio enpresa etxegabetze bat egiten saiatu zela salatu zuten Ibarrekolandako bizilagunek. Hain zuzen ere, Celestino Maria del Arenal Plazako 14. atarian. Auzokideek jakinarazi zutenez, enpresa horretako langileek jarrera bortitza erakutsi zuten uneoro, mehatxuak tarteko. Hori horrela, Kontseilu Sozialistaren Etxebizitza Sindikatuek etxegabetze saiakera salatzen elkarretaratzea aurrera eramane zuten auzoan bertan, abenduaren hasieran. "Ez dugu onartuko ez desokupazio-enpresen biolentzia, ezta edonolako etxegabetze saiakerarik ere (...). Desokupazio-enpresen aurrean ez instituzioek, ez epaitegiek eta are gutxiago Poliziak, ez gaituzte babestuko", adierazi zuten sindikatuko kideek desokupazio enpresen izaera faxista azpimarratuz.



## Igor Diaz herri omenaldia

Joan den abenduaren 7an Ondalan Konpartsaren kide izandako Igor Diaz zendu zen. Alde horretatik, Konpartsak bere kidea omentzeko herri omenaldia antolatu zuen abenduaren 16an. "Ilaunbateko ekitaldia Igorren omenezko brindis batekin bukatu zen. Oso hunkigarria izan zen Levante Plazan bildutakoen edalontziak altxatuz bere omenez egindako brindisa: izan ere, Igorren bizitza Ondalanan 28 urte izan dira. Omenaldiari Igorrek hainbeste maite zituen Erraldoiek eman zioten amaiera, polonesa dantzatzen", adierazi du Ondalan Konpartsako kide den Jabi Ortegak. Ondalan Erraldaien Konpartsak, bere aldetik, Deusturekin lotura estua du, 1996an sortu zenetik, eta Erraldoi eta Buruhandien jai tradizioa eta euskal kultura tradizionalaren beste alderdi batzuk suspertzea du helburu.





Sainz Artiach sendiak utzitako argazkia.

Urtea: 1932

Txema Luzuriaga

## *Deustuko zubia*

Abenduko eta urtarrileko zenbakietan, Deustuko beste zubi bat ikusiko dugu; hain zuzen ere, Deustun dugun zubirik ospetsuena eta enblematikoena. Gogoratu beharra dago, lau urteko lanen ondoren, 1936ko abenduaren 13an inauguratu zela Deustuko Zubia. Hain zuzen ere, Jose Ortiz de Artiñano eta Ignacio de Rotaetxe ingeniariaren proiektutik abiatutako lana izan zen.

Hala ere, sei hilabete ondoren, jada desagertuta zeuden Deustuko eta Abandoko elizateak lotzen zituen biaduktua Gerra Zibila bitartean lehertu egingo zuten. Tropa frankistak Bilbon sartu eta gero, berreraikitze lanei ekin zioten. Horrekin batera, diktadoreak zubiaren izena aldatzea erabaki zuen, Bilboko gainerako zubiekin egin zuen bezala.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

# YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



## ATXURI TABERNA

Luzarra 1  
Deustu

946 75 40 17

Iragar zaitez

# Prest!

-en

tel. 94 447 10 42  
bilbokoaldizkariak@gmail.com




**Alonso  
Pertsianak**

Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com

# Optica Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburudenda  
San Pedro Plaza 4



Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29

1924tik Deustun  
*Tintorería*  
**La Flor**

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua

Probatu **herrizki.eus**

ANDROID APP Google play App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeonet.net

## Matxintxu aek euskaltea

Matrikula zaitez!

## Nailan

Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net

## RONDOKO HORTZ KLINIKA

*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia

PADI  
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97

## Bitxidenda

# Sabin

## Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

## PERSIANAS KM CERRAMIENTOS

### Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

## BIDAURRE

elektrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23



Gertu dugu urte berria.  
Zein da zure asmoa  
2024rako?



**Mikel  
San Inazio**

lazko asmoak betetzea.



**Gorka  
San Inazio**

Lana mantentzea eta famillarekin eta lagunekin dudan harreman ona izaten jarraitzea. Gainera, denbora libre gehiago izatea gustatuko litzaidake, plan ezberdinak egiteko.



**Aitor  
Deustu**

Nire proiektuak aurrera eramatea, gaizki ateratzeko beldurrik gabe eta nire gertukoei denbora gehiago eskaintzea.



**Marina  
San Inazio**

Gimnasioan izena ematea eta hilean hiru aldiz baino gehiagotan joatea lortzea.



**Zuriñe  
Santurtzi**

Nire denbora librea benetan zorionsu egiten nauten pertsoneri eta bizipeneri eskaini nahi diet.



**Nerea  
Burgos**

Gutxiago erretzea, nahi dudan jendearekin denbora gehiago igarotzea eta, batez ere, neure burua ondo maitatzen ikastea.



# harkua bete herria

>> ZINEA

## IZENA DUENA BADA

Testua: Itxaso Sainz



Badira urteak teknologia gure bizimoduaren giltzarri bilakatu zenetik. Lanean zein bizitza pertsonalean gailu digitalen menpe bizi gara. Nor ez da inoiz etxera bueltatu mugikorraren bila? Nork ez ditu gorriak ikusi lanean itzaltze informatikoa gertatzeagatik? Edota... nork sentitu du ezinegonaren sare sozialak denbora tarte batez erori direnean?

Argi dago aurrerapen teknologikoei erabat baldintzatzen digutela bizitza. Duela zenbait hamarkadatik hona, bizimodua “modernizatu” zaigu. Horri esker, bata bestearengandik hurbilago, konektatuago bizi gara. Kulturalki nolabait hurrenago gaude. Baina hori bada arrazoia gure tradizioei uko egiteko?

Egun, mundu globalizatu honen baitan, gizarte kosmopolita baten parte gara; hala ere, gehienok talde batekiko atxikimendua sentitzea beharrezkoa dugu, zerbaitekiko erroak izan. Herri/komunitate sentitzeko premia dugu, kultura partekatu beharra. Jo dezagun orduan hastapenetara, zerk egiten gaitu euskaldun? Askori, ziur aski, burura etorri zaizuen lehenengo gauza euskara izan dela, ezta? Baina hori al da euskadun izateko “betekizun” bakarra?



Aspaldiko partez gure herriak mundua du bizitoki, eta herri garaikide askoren antzera, mundua ulertzeko mekanismoak sortu izan ditu. Izan ere, historian zehar ikusi da gizakiok galdera sakonei erantzuteko beharra izan dugula, inguruan sortzen zitzaizkigun gertakari ulertezinen aurrean azalpen

bat izateko. Beraz, azalpen horiek era fantastikoan badira ere, ezin dugu ukatu euskal mitologia gure esentziaren lehenetariko isla izan daitekeela. Areago, munduarekin bat aurrera egin arren, gure izaeraren lehen zantzuak ezin ditugu atzean utzi.

Egia da negu partean zein inauteriak aldera, euskal mitologia nolabait gogora ekartzen dugula; baina batez ere, haurtzaroarekin lotzen dugu, umeen kontuak izango baillitzan. Dena den, ezin dugu ahaztu geure herria mitologiaren zein pertsonaia mitologikoez baliatu zela garaiko errealitatea ulertzeko. Azken batean, euskal mitologia geure kulturaren, ondarearen nahiz munduaz dugun ikuspegiaren oinarria da.

Hori esanda, nahitaez Paul Urkijo zinemagileak aipamen berezia behar du gurean. “Errementari” edota “Irati” bere azken lanen bitartez, euskal mitologia beste eszenatoki helduago batera eraman nahi izan du. Eta, zalantza izpirik gabe, bete-betean lortu du. Izan ere, bi filmek oso harrera ona izan zuten ikusleen artean, biek eskuratu baitzuten “Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean” Ikusleen Saria, 2017an eta 2022an, hurrenez hurren. Horrez gain, begi bistakoa da gure mitologia mundura zabaltzera heldu dela, egun filma biak harpidedun gehienetarikoko plataformetan daudelako ikusgai (Amazon Primen eta Netflixen).

Are gehiago, Urkijok bere azken filmean bertan, geure tradizioa eta horren barnean dauden izakiak zaintzeaz dihardu. Horretarako, “Izena duena, bada” euskal esaera darabil; hausnartzera gonbidatzen garamatzalako, bai ikusleok, bai fikzio barruan aritzen direnak, gure ohituren jagole onak izan gaitezen. Finean, izena duena existitzen da; ez ditzagun historiaurretik datozkigun kondairen nahiz mitoen izenak ahantzi. Ez al gaituzte euskararekin batera, euskaldun “oso” egiten?





## EUSKAL HERRI DUINAGO ETA FEMINISTAGO BAT ERAIKITZEN

Testua eta argazkia: I. Barrutiko Greba Komitea

Etorkizuneko historia-liburuetan agertuko gara. Etorkizuneko haurrek, gazteek eta helduek ikasiko dute, behinola, egon zela Euskal Herrian Mugimendu Feminista ausart bat, unea irakurtzen jakin zuena eta erakutsi ziguna naturaltzat jotzen genituen hainbat gauza ez zirela, seguruena, ordura arte uste genuen bezain naturalak.

Naturalaz ari naizenean, ez naiz ari, noski, 2023ko azaroaren 30ean bota zuen euri-jasaz. Horren harira aipatuko dudan bakarra da, euria egiteari utzi ez zion egun hori irribarrez oroitzen dudala, umoreari eusten jakin geniola dozenaka auzokidek. Jakin izan genuela, inteligentzia kolektiboz, eguna borrokalaria bezain gozagarri egiten. Gosari jendetsua, pikete alai eta desnormalizatzaileak, bazkari beroa eta bazkal osteko norbere zaintzarako masaje zirkuitua izan ziren borroka-eguna borobildu zuten zaintza kolektiboaren adibideetako batzuk.

Naturalaz ari naizenean, berezkotzat dugun eta gugan inskribatuta dagoen menderakuntza sistemaz ari naiz. Lisiperen 'Trikuia esnatu da' liburuan Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek gaia biluzten dute, eta hala diote: "Askotan, boterea armaz hortzetaraino josia irudikatzen dugu, haren kontra egiten dion guztiari bortxaz eta zigorraz erantzuteko prest dagoena. Eta, noski, badu horretatik, ondo



ezagutzen dugu guk gainera. Baina horrekin batera, baditu askoz ere modu sotilagoak zapalkuntzak gutako bakoitzean inskribatzeko, gu geu egiteko geure gorputzetan bizi ditugun menderakuntza horien elikatzaile eta iraunarazle. Horixe litzateke, beraz, naturalizazioa". Eta, beraz, zaintzaren sistema datorkit burura ezinbestean. Gutako bakoitzean inskribatuta

# Días estupendos

urtarrilaren 19tik otsailaren 11ra

Egilea

ALFREDO SANZOL

Zuzendaritza

ITZIAR LAZKANO

Antzezleak

GORKA LUNA, ITXASO SANCHEZ, IZAR PIZARRO,  
OMAR SOMAI, MARKEL VAZQUEZ, SOFÍA ZALLIO.

dugun, edo orain gutxi arte genuen, berezko sistema, menderakuntza sistema. Naturala baita emakumeak gizona baino gehiago zaintzea, edota migrantea bertokoa baino prekarioagoa izatea.

Naturalizazioaren batailan datuek ere jokutzen dute beren papera, beraz, zer diote zenbakiek gaur egun naturala den honetaz?

- Lan bila ez dabilzan eta etxeko lanera emanda dauden herritarren % 88a emakumeak dira.
- Etxeko lanetara emanda dauden emakumeek Gutxieneko Soldata jasoko balute, 2024rako Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Proiektuaren % 24a suposatuko luke.
- Adineko erresidentzien % 90a baino gehiago titulartasun pribatukoak dira. Foru Aldundiak kudeatzen ditu azpikontrata gehienak, eta egoitza Deustun dugu.
- Seme-alabak zaintzeko hartzen diren eszedentzien % 95 emakumeek hartzen dute. Senitartekoak zaintzeko hartzen diren eszedentzien % 82 emakumeek hartzen dute.
- Jaiotza bakoitzeko, emakume batek bere irabazien % 4 galtzen du eta gizon batek bere irabaziak % 6 handitzen ditu
- Barneko erregimenean egoiliar gisa lan egiten dutenen % 95 emakume etorkinak dira.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak bere helburua bete du. Greba Feminista Orokorraz geroztik, zaintzaren afera problematizatu eta konfrontatzen dugu. Euskal Herrian, askotariko politikak zaintzaren ikuspegitik egiten hasi dira. Eta euskal gizartearen ahotan dago zaintzaren gaia. Euskal gizartea diot, badirudielako euskalduntasunarekin estuki lotua joan dela greba honekiko atxikimendua. Badirudi, oraingoan ere, euskal jendartea izan dela denen eskubideen alde planto egin duena.

Zaintzaren borroka-zikloa zabaldu berri da, Greba Feminista Orokorra prozesu luze baterako abiapuntua baitzen. Euskal Herrian pertsona guztiek, bizi osoan, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaintzeko eta jasotzeko duten eskubidearen alde aurrera urrats sendoak emateko prest gaude.

Haurrek, gazteek edo helduek etorkizuneko historia-liburuak irakurtzean euren amamez harro egongo dira, ziur nago. Izan ere, guk ere, matxinada hau, gure amamen omenez ere egin dugu. Zuengatik ere bada, Karmele, Mariasun, Begoña eta Marikarmen.

Aurrerantzean ere, jarrai dezagun norberaren amama, iloba, bizilaguna eta kidearen alde, Euskal Herri duinago eta feministago bat eraikitzen Deustutik, Sanitik, Erriberatik, Ibarrekolandatik eta Arangoitik elkarlanean.





# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## Patata tortilla

Zenbaki honetan, Deustuko tabernarik klasikoenetako bat dakarkizuegu; hain zuzen ere, 2024an 40 urte beteko dituen La Parra taberna.

Prezioa: 1,50€

Zailtasuna: txikia

Denbora: 20 minutu

### Kontu batzuk

Bezeroek La Parrako tratu bikaina eta tortillen gozotasuna azpimarratzen dute. Horrexegatik, Manuren tortilla famatuak ezagutzera hurbildu gara. Gogoratu, etxerako zerbitzua ere badutela eta, beraz, zuen sukaldean bertan jaso dezakezue Deustuko tortillarik goxoen.



**BAR LA PARRA**

Ramon y Cajal Etorbidea, 32





## Nola egin?

Oraindik ez dakizue patata tortilla bat prestatzen?!  
Ez duzue barkamenik merezi...

## OSAGIAK

*Patata*

*Kipula*

*Arrautza*

*Ogia*

*Gatza*



### Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**DANEL LAUZIRIKA ERKIAGA**

*Tsundokeroa*

## GUTARRAK

Bat hartu eta utzi, erreferente soziopolitiko eta kultural zaharrunoz lepo (ondo dago V. Asanbladakoak irakurtzea, baina...). Hurrengo liburua hartu eta are okerrago, euskal prentsako kazetari orotxiolari baten desbenturak irakurri beharrez. Lehen ez bezala, aspaldion uxatu egiten naute abiapuntu gutarregiek.

Hirugarrenean, baina, ttak: argumentu aldetik gutarrismoan erortzeko osagai denak dituen nobela batek egin dit argi iluntasunean. Iratiko oihanean sute baten ondorioz hildako hiru mendizalaren kasua ikertzeko artzain artean ibili behar duenarena ez zitzaidan erakargarri, baina hasierak berak uxatu du aurreiritzi oro. Eneko Barberenaren Suak erreko ez balu nobela beltzaz ari naiz.

Protagonistaren izaera berezi eta gogorraren bidez egin dio ihes idazleak paisaiaren bukolikotasunari, Aezkoa idilikoa kontu erreal zatarretara eramanez. Ainhoa Sanz peritu protagonistak gutarra izateko elementu guztiak ditu: euskaltzalea-feminista-ekzertiarra. Baina horri honakoak gehitu dizkio idazleak: Arrasateko punkismoa, broma gutxiko izaera, berrogeiak betetakoon zinismoa eta alkoholismo latza. Koktel aparta.

Begirada punkarrak lagunduta, brutalak dira parrokiario batzuen erretratuak eta eszenak, hala nola Luzaideko kontrabandista-mafioso zaharren bunkerrekoa zein festa-girokoak. Gai zaharren ikuspegi freskoa ere badu nobelak: urteetan euskal gatazkaz arduratutako guardia zibilen okupazio berriak, mugalari lanbidearen eraldaketak, paradisu naturalen ustiapena eta horrekin lotutako bizi eta lan-baldintzak zein turismo ereduak.. betiere umore finez ziprztindua, Barberenak ederto zaindu baitu umorerako tartea. Nobela beltz ona.

*Doinua: Goizean altxatu eta*



**OIHANA GIMENEZ INFANTE**

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Aitatzok aitortu dio  
irribarrez begitara  
Durangoko azoka dugu  
irudimen hegalkada  
liburu bakoitzarekin  
izango duzu parada  
izar, ilargi eta hodeiei  
emateko besarkada  
beraz astindu hegalak  
eta hartu abiada  
zu hodei artean dantzan  
eta zurekin euskara

Irrika ezin ezkuta  
ezin estali zirrara  
haurtxoari aho zabalik  
bizkortu bihotz taupada  
akorde bakoitzarekin  
arteak hari ziztada  
hitz joko bakoitzarekin  
euskarari zurrupada  
mila artelan ehun artista  
eta guztiei hozkada  
gaurko goseak du ekarri  
biharko artista plazara

# eidabe

ekimen kulturalak

[www.eidabe.com](http://www.eidabe.com)

Jon Arrospide, 17 - 2. a - 15. dpto - Deustu



## eskatu eskaini euskaraz

Zuk  
aukeratzen  
duzu

Badakizu aukeratzen duzun  
hitzaren arabekoak izango  
direla zure harremanak?

**Bilbao**

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**e//**  
euskaraz  
BARRA // BARRA



# EGIN ZAITEZ BABESLE!

**Babestu Prest! aldizkaria:**

[bilbokoaldizkariak@gmail.com](mailto:bilbokoaldizkariak@gmail.com)



**Prest!**